




Erasoak EEBBetan



Gertaeren kronologia

14:48 Lehen hegazkinak dorreetako bat jo zuen

(08:48ak ziren Estatu Batuetako ekialdean)

Langile gehienak beren lanpostuetan zeuden. Hegazkin batek World Trade Centerreko bi dorreetatik hegoaldekoa jo zuen, 80. solairuaren parean. Dorreak su hartu zuten.

15:06 Bigarren hegazkinak beste dorrea jo zuen

(09:06ak ziren Estatu Batuetako ekialdean)

Bigarren hegazkin batek World Trade Centerreko iparraldeko dorrea jo zuen, 50. solairuaren parean, Estatu Batuetako telebistak lehenengo leherketaren ondorioak zuzenean ematen ari ziren bitartean. Dorreak su hartu zuten.

15:30 Bahitutako hegazkinak

(09:30ak ziren Estatu Batuetako ekialdean)

American Airlines konpainiak onartu zuenez, konpainiako bi hegazkin bahitu zituzten. Ikerketako iturrien arabera, horietako batek jo zuen World Trade Centerreko lehen dorrea: Bostonetik Los Angelesera zihoan Boeing 767a. 81 bidaiari, bi pilotu eta bederatzi laguneko eskifaia zuen. 92 lagun guztira. Era berean, United Airlinesek ere adierazi zuen bi hegazkin bahitu zizkiotela.

16:05 Lehen dorrea erori zen

(10:05ak ziren Estatu Batuetako ekialdean)

World Trade Centerreko hegoaldeko dorrea erori egin zen leherketaren ondorioz.

16:10 Hegazkin bater erorketa Pittsburghen

(10:10ak ziren Estatu Batuetako ekialdean)

United Airlines hegazkin konpainiaren hegazkin bat erori egin zen Pittsburghheko Somerset konderriko aireportutik gertu, Pennsylvanian. Newarketik abiatu (New Jersey) zen 10:01ean (EEBBetako ordua) eta San Franciscora zihoan. 38 bidaiari eta zazpi laguneko eskifaia zuen. Lerro hauek idazteko orduan ez zuten baieztatu hegazkinaren erorketaren zergatia. Bertsio aipatuaren arabera, hegazkinak norabidea aldatu zuen eta Washingtonera zihoan, eta Estatu Batuetako aire armadak bota egin zuen.

16:27 Bigarren dorrea erori zen


(10:27ak ziren Estatu Batuetako ekialdean)

World Trade Centerreko iparraldeko dorrea erori zen. Bi dorren erorketak sekulako hondakin eta hauts hodeia sortu eta zabaldu zuen New Yorken.

World Trade Center

Irekiera	1973. urtea.
Eraikinak	7.
Dorre Bikien diseinatzailea	Minoru Yamasaki arkitekto japoniarra.
Garaiera	415 metro (munduan bigarrenak). Dorreen oinarriak finkatzeko 55 kilometro koadroko zuloa egin zuten.
Solairuak	110. Bigarren dorrearen 107. solairuan New York ikusteko behatokia zegoen.
Azalera	930.000 metro koadro.
Materialak	200.000 tona altzairu eta 386.750 metro kubiko porlan.
Leihoak	43.600 leiho Dorre Bikietan.
Igogailuak	99 dorre bakoitzean.
Enpresak	Nazioarteko 500 konpainia baino gehiagok zuten egoitza bertan. Horrez gain, ekonomia ikasketak ere eskaintzen ziren bertan. New Yorkeko bisitarientzat informazio gunea ere bazegoen.
Langileak	40.000 inguru.
Bisitariak	100.000 lagun inguru egunero.
Aparkalekuen edukiera	9.000 auto.
Dendak	60 beheko solairuan.
Jabea	New Yorkeko estatua. Iragan uztaillean, ordea, bi enpresa pribaturi saldu zizkien Dorre Bikiak ustiatzeko eskubideak, 570.000 milioi pezetaren truke (23.000 milioi libera). Akordioak 99 urterako balio zuen.

Pentagonoari eraso



15:49

(19:49ak ziren Estatu Batuetako ekialdean)

Hegazkin bat erori zen Pentagonoaren mendebaldeko aldera, Washingtonen, eta sutea eragin zuen. Ikerketako iturrien arabera, American Airlines konpainiaren hegazkinetako bat litzateke: Washingtonen eta Los Angelesen arteko hegaldia egiten zuen Boeing 757a. 58 bidaiari eta sei laguneko eskifaia zuen. Pentagonoko langileak kaleratu egin zituzten leherketaren ostean. Pentagonoan da Estatu Batuetako Defentsa departamentuaren egoitza nagusia eta sinboloa. 1943an inaguratu zuten eta 24.000 lagun inguruk lan egiten dute bertan, bai zibilek, bai militarrek.